

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

**Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 24an hartutako erabakiaren laburpena: Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan 2019an egiten diren obrak finantzatzera zuzendutako diru-laguntzak emateko deialdia**

BDNS (Identif.): 461337

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

#### **Lehena. Onuradunak**

Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeek jaso ahal izango dituzte diru-laguntza hauek.

#### **Bigarrena. Helburua**

Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan 2019an egiten diren eraberritze obrek sortzen dituzten gastuei aurre egiten laguntzea da deialdiaren xedea, obra horiek ekipamenduen egoera hobetzeko, oinarriko hornidura jartzeko nahiz eraikinak Irigarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea eta hori garatzen duen 68/2000 Dekretura moldatzeko egiten direlarik ere.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 24an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 40.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

30 egun natural laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 24an

*Alkatetzaren eta Udal Harremanen Saileko Zuzendaria*  
**ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO**